

# KOSME ETA PIKAROAK

Bazen behin Kosme izeneko mutil bat, oso behartsua zen, eta hondartzan bizi zen. Goizez janari eske joaten zen etxez etxe, arratsaldean bildutakoa jaten zuen, eta gauean lo. Horrela egunak joan eta egunak etorri.

Baina egun batean esan zuen Kosmek:

-Beste herri batera joan nahi dut- eta horrelaxe hasi zuen bere abentura. Hurrengo goizean janari eske ibili beharrean, sutarako egur eske hasi zen. Gero, zuhaitz handi batetara igo eta hosto mordo bat bildu zuen, ondoren bildutakoa txoko batean utzi eta lotara joan zen. Biharamunean bildutako egur eta hostoekin txalupa bat egiten hasi zen: bi egur hartu eta hostoen zutoinarekin lotzen zituen. Horrela egur guztiarekin. Ondoren erratzaren kirtena txalupa erdian jarri zuen eta gainean bazkaltzeko erabiltzen zuen oihala. Txalupako txoko batean berriz, lastoa ipini zuen. Gaua zen eta Kosmek zera pentsatu zuen, erratzari lotu zion oihala maindire gisa erabiltzea eta hala egin zuen.

Hurrengo goizean maindirea bere tokian jarri berriro eta arraunean hasi zen. Egun hartan ikaragarritzko olatuak zeuden eta ezingo zuela inora iritsi erabaki, eta dena bere tokian utziz abentura atzeratu zuen.

Esnatu zenean ordea, etxe txiki batean aurkitu zen. Harriturik kanpora irten zen eta sekulako jende pila ikusi zuen dantzan. Pikaroak ziren. Oso altuak eta beltzak ziren.

Hortzez eginiko lepokoak zituzten eta soinean lumaz egindako jantziak. Hauek ere bere moduan oso behartsuak ziren. Jateko gutxi zuten eta beti gauza bera jaten zuten, arraina gosarian eta arroza bazkaltzeko. Batzuetan, oso gutxitan, bisonte haragia ere tokatzen zitzairen. Afaltzeko barazkiak jaten zituzten.

Pikaro horietako batek Mohamed izena zuen eta oso lagun egin ziren Kosme eta biek. Egun batean hala esan zion Kosmeri:

-Goazen ehizara Kosme- Honek baietz erantzun eta biek bisonteak ehizatzen abiatu ziren. Geziak bakarrik zituzten ehizarako eta egun hartan behintzat ez zuten jakirik lortu. Etxera abiatu ziren baina bidean galdu egin ziren, ez zuten etxeko bidea aurkitzen inondik inora ere. Bidean ez zuten inor aurkitu laguntza eskatzeko ere eta galduta denbora luzez ibili ziren. Halako batean bisonte bat hurbildu zitzairen eta etxerako bidea erakutsiko ziela agindu zien baldintza batekin: ez zuten bisonte gehiago ehizatuko. Kosme eta Mohamed-ek halaxe agindu zioten erabat harriturik eta etxerako bidea hartu zuten bi gizaki eta animalia hiltzen.

Herrira iritsi zirenean zer gertatu zitzairen kontatu zuten herritar guztien aurrean. Ordu ez geroztik pikaroak eta Kosme, pikaroen lagunak, ez dute bisonterik ehizatzen. Euren herria baratzaz bete dute eta arraina eta barazkiez elikatzen dira. Bisontea berriz pikaroen animalia sakratua da.

Motelson